

LIBURUTEGIAREN ERABILERAREN ARAUAK

- Liburutegia bazkide zein pertsona partikularrek kontsultarako materiala erabiltzeko sortu da.
- Liburutegiko izenburu guztiak zerrenda eta diskete batean bilduta daude, guztion eskura.
- Aldizkariak maileguan hartu ahalko dira, bakoitzaren azken alea izan ezik. Azken hau “berriak”en goiko apalean egongo da ikusgai.
- Bideo eta CD-ak ere mailegu zerbitzuaren zati dira, txostenak ordea ezin izango dira hartu, Zuzendaritza Batzordeko inork espreski baimendu ezean.
- Pertsona bakoitzak bi gauza (liburu, aldizkari, e.a.) har ditzazke gehienez maileguan aldi bakoitzean, bi asteko epeaz.
- Dagokion fitxa bete ondoren, liburutegiko arduradunari eta azken hau egon ezean, Zuzendaritza Batzordearen kideren bati emango zaio.
- Elkartearen sekzio desberdinen funtzionamenduarekin lotuta dagoen edozein lanek gainontzeko liburuen erabileretan lehentasuna izango du eta lan horrek lehen maileguan emandako libururen bat premia izango balu, liburu hori itzuli beharko da.
- Liburutegia guztiona da, zain itzazue liburuak mesedez. Liburu edo gauzaren bat galtzen edo txikitzen duen orok derrigorrez birjarri edo ordaindu beharko du.

Liburuzaina